

5. GAIA: URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA

ZEREGINAREN EBAZPENA

4. Gaian, azken ariketa osoan, KA2,S.A. enpresaren 202xko Urteko Kontuak ikuskatzeko izendatu zaituzte. Bere jarduera hondartzarako aulki eta etzaulkien salerosketa da.

ESKATZEN DA: KA2 enpresatik lortutako ebidentziak kontuan hartuta eta Memoriako informazioa, Auditoretza-Txostena idatzi.

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEI BURUZKO AUDITORIA-TXOSTENA

KA2, S.A. sozietatearen akziodunei:

Iritzia

KA2, S.A. ren (hemendik aurrera, sozietatea) erantsitako urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 202xko abenduaren 31ko balantzeak eta data horretan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuaren egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, «Iritziaren oinarria, salbuespenekin» paragrafoan deskribatzen diren egitateetatik ez bada, erantsitako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, ondarearen eta sozietateak 202xko abenduaren 31n zuen finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorreko arau eta irizpideen arabera.

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

1. Diruzaintza arloari dagokionez, sozietatek atzerri-monetan dagoen eskudirua itxieran truke-tasa berriarekin sortu diren aldeak ez ditu galdu-irabazietan jaso, sozietatearen iritziz ez baitira sortutako edo gauzatuta kontsideratzen, KPOko 11. Balorazio irizpideak diotenaren kontra.

Aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparruaren arabera -11. Atzerri-moneta balorazio araua- atzerri-monetan egindako transakzioak zenbatekoa moneta funtzionala ez den moneta batean izendatuta daukatenak edo moneta funtzionala ez den moneta batean likidatu beharrekoak dira. Enpresak lan egiten duen inguru ekonomiko nagusiko moneta da moneta funtzionala, kasu honetan euroa. Diruzko partidei dagokienez, hasierako balorazioa, atzerri-monetan egindako transakzioa moneta funtzionalera bihurtuz kalkulatu da, atzerri-monetako zenbatekoari bi moneten arteko eskurako kanbio-tasa aplikatuta, hau da, transakzio-datan berehala entregatzeko transakzioetan erabiltzen den kanbio tasa aplikatuta, eta transakzio-data eragiketa kontabilizatzeke baldintzak betetzen diren eguna dela ulertuta. Geroko balorazioari dagokionez, diruzko partidak ekitaldi-itxieran baloratuko dira,

itxierako kanbio-tasa aplikatuta, hau da, data horretan dagoen eskurako batez besteko kanbio-tasa aplikatuta. Prozesu horretan sortzen diren kanbio-diferentzia positiboak nahiz negatiboak, eta ondare-elementu horiek likidatzean sortzen direnak, sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira. Hori dela eta, 202xko ekitaldian 90,91 euro ekitaldiko sarrera bezala erregistratuta beharko lukete, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Kanbio-diferentziak" epigrafearen kontura.

2. Bezeroek itzultitako salgaiengatik 202xko ekitaldian 1.400,00 euroko salmenta gutxikuntza alde batetik eta 1.220,00 euro ekitaldiko sarrera bestetik erregistratuta beharko lukete, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Negozio-zifraren zenbateko garbia" eta "Hornikuntzak" epigrafeen kontura.
3. Kobru eskubideen balio-narriadura. Ekitaldi itxieran behintzat, egin beharreko balio-zuzenketak egingo dira, objektiboki ikusten denean hartzeko baten balioa narriatu egin dela hasierako kontabilizatzea egin ondorengo gertaera batengatik edo batzuegatik eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuak atzeratu eta murriztu egin direla, beharbada zordunaren kaudimengabeziagatik.

Aktibo finantzario horien balio-narriaduraren galera honela kalkulatu da: liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuen balio eguneratuaren arteko diferentzia. Hori dela eta, sozietateak duen bezero baten egoeragatik 202xko ekitaldian 4.300,00 euro ekitaldiko gastu bezala erregistratuta beharko lukete, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako gastu" epigrafearen kontura.

4. Salgaien balioesteko metodoari dagokionez, balioetsi beharreko ondasunak konkrituak direnean eta elkarren artean trukagarriak diren ondasunen inbentario batekoak direnean, batez besteko prezioaren edo batez besteko kostu haztatuaren metodoa erabiliko da oro har. Enpresak irizpide hau erabili duela aitortu badu ere, aulkien kostua egiaztatzerakoan unitateko 0,5€-ko aldea egiaztatu da, beraz bukaerako izakinengatik 50 euroko minusbalioa dago. Bestalde, bidean dauden aulkien kontrola 202x+1 ekitaldian emango den kasuak direla eta, 3.600 euroko minusbalioa ere aurreikusi da. Etzaukietan aldiz 960 euroko gainbalioa ezagutu da inbentarioan dauden aldeengatik. Hori dela eta 202xko ekitaldian guztira 2.690,00 euro ekitaldiko sarrera bezala erregistratuta beharko lukete, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Hornikuntzak" epigrafearen kontura.
5. Enpresaren iritziz, izakinen balio bihurtarri garbia bere eskuratze prezioa edo produkzio kostua baino txikiagoa denean, ez dira balioztatze zuzenketak egiten. Alegia, salmenta gauzatu arte ez da balio-galeren aurreikuspenik egingo. Ondorioz, ez du kontuan hartu etzaukien merkatu balioa ekitaldi itxieran.

Zuhurtzi printzipioa jarraituz, izakinen geroko balorazioan, balio bihurtarri garbia eskuratze-prezioa edo produkzio-kostua baino txikiagoa denean, behar diren balio-zuzenketak egingo dira eta gastu moduan kontabilizatuko dira galdu-irabazien kontuan. Hori dela eta, 202xko ekitaldian 4.110,00 euro ekitaldiko gastu bezala erregistratuta beharko lukete, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Hornikuntzak" epigrafearen kontura.

Enfasi paragrafoa

Atxikitako memorian 22. oharrean jasotakoan arreta jartzeko eskatzen dugu, koronabirusak (COVID-19ak) ekarri duen krisi sanitarioak sozietatearen gain izandako eraginarekin erlazionatua.

Bertan deskribatzen da pandemiaren eboluzioak sorturiko egoera. Gure iritzia ez da aldatu gai honen ondorioz.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Urteko kontuen auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Kudeaketa-txostenean agertzen den informazioaren inguruan, gure erantzukizuna Espainian indarrean dagoen kontu-auditoreen jardueraren legedi erregulatzailan aurki daiteke, non bi maila desberdin ezartzen diren:

a) Maila espezifiko bat, informazio ez finantzarioko egoeretan aplikatu daitekeena. Hau da, zitaturiko informazioa kudeaketa-txostenean erraztu dela egiaztatzen duena, edo bestela, kudeaketa-txostenean, informazio ez finantzario horren txostena erreferentziaztea, araudiak dioen moduan, kontrako kasuan, txostenera eramanez.

b) Maila orokor bat, kudeaketa-txostenean topatu daitekeen gainerako informazio guztiari aplikagarria. Zitaturiko informazioa urteko kontuekin bat datorrela ebaluatzean eta jakinaraztean datza, urteko kontuen auditoretzan eskuraturiko informaziotik abiatuz, baliagarri izandakoaz at beste informaziorik kontuan izan gabe.

Honez gain, kudeaketa-txostenaren zati honen edukia eta aurkezpena aplikagarria den legediarekin bat datozen ebaluatzen eta informatzen da. Egindako lana oinarri izanik, akats materialak antzematen baditugu, informatzera behartuak gaude.

Egindako lanaren oinarriari dagokionez, azken bi paragrafoetan deskribatu bezala, a) atalean aipaturiko informazioa kudeaketa txostenean ahalbidetzen dela egiaztatu dugu, eta txosteneko gainerako informazioa bat datorrela 202xko urteko kontuekin, edukiak eta aurkezpenak aplikagarria den legediarekin bat egiten dutelarik.

Urteko kontuen inguruan, Administrazio Kontseiluaren ardura

Administrazio Kontseiluak erantsitako kontuak prestatzeko ardura du, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorreko arau eta irizpideen arabera, hori baita erakundeak helburu hori lortzea hobekien ahalbidetzen diola iritzi duen finantza informazioaren arau-esparrua (ikus erantsitako memoriaren 2.1 oharra), baita iruzurra edo errorea dela-eta akats materialik izango ez duten urteko kontuak prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotako barne-kontrolako araudiaren arabera ere.

Kontuak prestatzean, Administrazio Kontseiluak erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna balioztatzeko ardura du, hala badagokio, funtzionatzen duen enpresarekin lotutako kontuak ezagutaraziz eta funtzionatzen duen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, salbu eta Administrazio Kontseiluak erakundeari amaiera emateko edo bere eragiketarako eteteko asmoa badu, edo beste aukera errealistatik ez badago.

Urteko kontuen inguruan, auditorearen ardura

Gure helburuak honako hauek dira: urteko kontuek, beren osotasunean, iruzurra edo errorea dela-eta akats materialik izango ez duten segurtasun arrazoizkoa lortzea eta gure iritzia duen auditoretza-txostena igortzea. Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun-maila altua da, baina ez du bermatzen Kontuen Nazioarteko Ikuskaritzako Arauen arabera egindako auditoretza batek akats materiala beti antzemango duenik, dagoenean. Akatsak iruzurratik edo erroreagatik izan

daitezke, eta materialtzat hartuko dira, baldin eta, indibidualki edo era agregatuan, erabiltzaileek kontuetan oinarrituz hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela arrazoiz aurreikus badaiteke. Espainian indarrean dagoen kontuen auditoretzaren arautegia jarraituz egindako lan guztian zehar eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko.
- Iruzurrerengatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ezegitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu.
- Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.
- Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikaturako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azalduko arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

OCW20 auditorea

ROACen inskribatua S0091 zenbakia

202x+1, martxoaren 13an